



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko otsailaren 24a

30. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 10-23/ITP-00004. Interpelazioa, hezkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa, Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 10-23/ITP-00005. Interpelazioa, hizkuntzen ikaskuntzaren eta horiek Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman modu integratuan tratatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso aurkeztu du (3. or.).
- 10-23/ITP-00006. Interpelazioa, etxebizitza babestuen eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa, José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia aurkeztu du (4. or.).
- 10-23/MOC-00021. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (5. or.).
- 10-23/MOC-00022. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztupoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatu dezan Europar Batasunaren esparruan, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarioen elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).
- 10-22/MOC-00066. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da berriemaile gazteen programa bultzatu dezan gure Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan, Mozioa erretiratzea (8. or.).
- 10-22/MOC-00067. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da bultzatu dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egitea, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (8. or.).
- 10-22/MOC-00110. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premia-tzen da genitalak aldatzeko operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (9. or.).

- 10-23/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen baitu, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela, Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- 10-23/PES-00058. Galdera, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/PES-00059. Galdera, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarterko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilere buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/PES-00060. Galdera, jakiteko ea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zer dela-eta eskatu duen ikuskapenak egin dakizkion Guardia Zibileko SEPRONARI, eta ez, ordea, Foruzaingoko Ingurumen Brigadari, Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- 10-23/PES-00061. Galdera, alokairuko ibilgailu gidaridunen erregistroa sortzeari buruzkoa, Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- 10-23/PES-00062. Galdera, aerosorgailu-palen tratamendurako EnergyLOOP enpresak Cortesen sustaturiko plantari buruzkoa, Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- 10-23/PES-00063. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean Nafarroako toki entitateek parte hartzeari buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- 10-23/PES-00064. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 5. proiektua Nafarroako toki entitateen bidez betetzeari buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- 10-23/PES-00065. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- 10-23/PES-00066. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruzkoa, Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 26/2023 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, zeinaren bidez bost idatzizko galdera sartzen baitira martxoaren 15erako deituta dagoen Eskubide Sozialetako bilkuran, ahoz erantzun daitezten. (19. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, hautaprobe bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzekoa: bata, Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako; eta bestea, aldi baterako administrazio-kontrataziorako, Gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda (20. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

### **10-23/ITP-00004. Interpelazioa, hezkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko interpelazioa, hezkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, hezkuntzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

---

### **10-23/ITP-00005. Interpelazioa, hizkuntzen ikaskuntzaren eta horiek Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman modu integratuan tratatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso aurkezturiko interpelazioa, hizkuntzen ikaskuntzaren eta horiek Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman

modu integratuan tratatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, hizkuntzen ikaskuntzaren eta horiek Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman modu integratuan tratatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2023ko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

**10-23/ITP-00006. Interpelazioa, etxebizitza babestuak eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia aurkezturiko interpelazioa, etxebizitza babestuak eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako hau eskatzen du:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, etxebizitza babestuak eraikitzearen arloko politika orokorrari buruzkoa

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **10-23/MOC-00021. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa.**

### *NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioaren eta foru parlamentarien elkartearen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Peruko indar armatuek protestei erantzuteko egindako errepresioak dozenaka hildako eta ehunka zauritu eragin ditu pasa den abenduaren 7an Pedro Castillo kargutik kendu zutenetik Peru osoan egiten ari diren manifestazioetan. Duela zenbait urtetik hona Peruk bizi duen krisi politikoa larriagotu egin da Castillo kargutik kendu zutenetik –hark Kongresua ixtea erabaki ondoren– eta Kongresuak Dina Boluarte lehendakariordea lehendakari izendatu zuenetik.

2021eko hauteskundeetan, Peruko klase popularrek Pedro Castillo lehendakariarengan jarri zuten haien itzaropena, landa-eremuko eta jatorri popularreko agintari horrek gehiengo sozialak behar dituen aldatetako ekarriko zituelakoan, non eta desberdinkeria oso errotuta dagoen herrialde batean.

Alabaina, botere ekonomikoaren ordezkari den eskuina gobernuaren jardun oro blokeatzen eta oztopatzen egon da legealdiaren hasieratik. Horretarako, herrialdearen erakunde-hauskortasuna aprobetxatu dute; hain zuzen, Perun oraindik ere indarrean dago Alberto Fujimoriaren gobernu autoritarioaren garaian idatzi zen 1993ko Konstituzioa.

Castillo lehendakaria kargutik kendu, hura atxilotu eta Dina Boluarte lehendakari izendatu zutenetik, sektore popularrek hainbat manifestazio egin dituzte herrialde osoan. Agintariek bortizki errepresioak errepresioak, eta larrialdi-egoera dekretatu dute oinarritzko eskubideak mugatzeko, kasurako, mugitzeko eta biltzeko askatasuna.

Peruko herriak eskubidea du bere borondatea hautestontzietan adierazteko. Boluarte hauteskundeetara deitzeko proposamena egin du 2024ko apirilera, baina hori onartezina da, eta ahal bezain azkarren deitu behar dituzte. Prozesu konstituziogile bat abiatu behar da, fujimorismoarekin behin betiko amaitzeko, zeinak hamarkadetan zehar eredu autoritario eta ustel bat betikotu baitu. Era berean, herritarren protesten errepresio bortitzari amaiera eman behar zaio lehenbailehen.

Giza eskubideak bermatu behar dira, eta eskubide horiek ezin dira bertan behera utzi, ezta krisi-estuinguru batean ere.

Elite baten pribilegioak betikotzea baino bilatzen ez duen estatu bortitz eta autoritario batek ezin ditu berriz zapuztu Peruko herriaren aldaketarako itzaropenak.

Erabaki-proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak salatzen du Peruko herria Peruko indar armatuen aldetik bizitzen ari den errepresioa.

2. Nafarroako Parlamentuak nazioarteari dei egiten dio bitarteko izan dadin atxilotuen eskubideak babesten direla bermatze aldera, defendatzeko eskubidea ezin dutelako baliatu.

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Eledunak: Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

**10-23/MOC-00022. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa iza-  
ten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko  
guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake proze-  
suari jarritako oztopoak desagerrarazteko eta helburu hori bera plan-  
tea dezan Europar Batasunaren esparruan.**

*GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODE-  
MOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIOEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarioen elkar-  
teak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztopoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatzen dezan Europar Batasunaren esparruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azaroaren 24an sei urte beteko dira 2016an Kolonbiako Gobernuak eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileek “gatazka behin betiko amaitzeko Akordioa” sinatu zutenetik Bogotan. Akordioari esker, amaitutzat eman zen berrogeita hamar urte baino gehiago luzatu zen barne-gataz-

ka armatua, bederatzi milioi biktima inguru eragin zituen.

Kolonbiako akordioa sinatu izanak esperantzaz bete zuen Kolonbia, bai eta mundu guztia ere. Hilabete gutxitan, drastikoki jaitsi ziren indarkeria-tasak, bakearen eta justizia sozialaren printzipioetan oinarritutako gizarte berri baten oinarriak ezartzen zituen prozesuarekiko herritarren konfiantza indarrez hazi bidenabar.

Esperantza hura, halere, laster hasi zen itzal-  
tzen edo galtzen. Sinaduraren ondorengo lau urteetan, akordioaren implementazioa izoztu edo atzeratu egin zen.

Halatan, Nekazaritzaren Erreforma Integralari dagokionez, adostutakoaren % 3 ere ez da bete gaur arte; lurren itzulketa ia ezdeusa izan da lekualdatutako nekazarien, indigenen eta jatorri afrikarrekoen kasuan; bazter utzi dira labore ez-zilegiak ordeztzeko alternatiba jasangarriak; eta ahanzi egin da borrokalari ohiak bizitza sozialera batzera bideratutako proiektuen aldepena. Kolonbiako herri indigenen bazterketa historikoa betikotu eta larriagotu egin da; izan ere, berriz ere jazarpena jasaten ari dira usurpatutako lurak erreklamatzeko dituzten buruzagiak, zigorgabetasun-giro batean.

Genero-ikuspegiari eta LGTBI kolektiboek dagokienez, akordioan jasotakoaren % 20 ezarri da ozta-ozta; hortaz, horiek denek paramilitarren nahiz bestelako talde armatuen helbururik gogokoena izaten jarraitzen dute.

Indarkeria-giroa urtez urte areagotuz joan da, akordia sinatu aurreko indarkeria-tasak gainditu arte areagotu ere, lege kanpoko talde armatuen goraldiagatik –bereziki, paramilitarrena–, giza eskubideak urratzeagatik, bizitza soziala gero eta militarizatuagoa egoteagatik eta indar publikoak errepresio gero eta bortitzagoa baliatzeagatik herritarren erreibindikazioei aurre egiteko. Bake-akordioa sinatu eta gizartratze-prozesuan zeu-



den 300 pertsona baino gehiago erail dituzte; era berean, aurtun 114 buruzagi erail dituzte.

Horren atzean dauden arrazoiak, finean, ez dira soilik legez kanpo diharduten pertsonak, bere kabuz dihardutenak, bakean bizi nahi baldin badu Kolonbiak lehenbailehen konpondu beharreko egiturazko faktoreak ere baitaude: Kolonbiako paretotasun sozialik eza ohiz kanpoko izatea; bazterketa sozial eta politikoa; lurren espoliazioa eta berrantolamendua, eta enpresa transnasionalek lurraldeen nahiz lurralde horietan bizi diren erkidegoen kasuan baliatzen dituzten jokabide suntsitzaileak.

Bidegabekeria sozialeko faktore horiek gaintzen laguntzen dute, modu erabakigarrian lagundu ere, 2016ko Bake Akordioek, zeinen helburu nagusia baita egitarako, justiziarako, erreparaziorako eta erreparaziorako ezerako sistema integral bat sendotzea.

Gaur egun, Kolonbiak aldaketa-garaiak bizi ditu, Errepublikaren Kongresu berria eta Gobernu berria baitaude; hain zuzen, Gobernuak konpromisoa adierazi zuen Bake Akordioa betetzeko eta ELNrekin negoziatioak berriz hasteko, eta berriro azaldu zuen legez kanpoko beste eragile armatu batzuei bake-agertokiak eskaintzeko asmoa.

Egungo lehendakaria aurkeztu zeneko bake-agendak babes zabalagoa lortu du, bere alderdik haratago, eta, beraz, badirudi bake-agendak Kongresuaren gehiengoaren babesa duela. Horregatik, prozesu horrek ahalik eta babes handiena izatea merezi du, baita gure autonomia-erkidegoarena ere.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

#### 1- Nafarroako Parlamentuak:

a) Babes argia adierazten die bake prozesuari, egitarako, justiziarako, erreparaziorako eta erreparaziorako ezerako sistema integralari, zeinen parte baita Egia Argitzeko Batzordea, Bake Jurisdikzio Bereziari eta Desagertutzat emandako Pertsonak

bilatzeko Unitateari; eta dei egiten du –akordioa sinatu zenetik sei urte joan diren honetan– gatazka behin betiko amaitzeko akordioaren alderdi guztiak oso-osorik ezartzera, bake justu eta iraunkorra egon ahal izateko.

b) Adierazten du bat datorrela eta konpromisoa duela Kolonbiako Gobernu berriak iragarritako erabateko bakearen helburuarekin.

c) Bat dator ELNrekin elkarriketak berriz hasteko prozesuaren balorazio positiboarekin, gatazkaren behin betiko eta negoziatutako irteera lortzeko helburuarekin, haren egiturazko kausei erantzun integrala emanez, eta abegi ona egiten dio gobernu berriak legez kanpoko egitura armatu guztiei egindako deiari, amaieran horien guztien desagertzea ekarriko duen prozesu bat abiatzeko.

d) Konpromisoa adierazten du Kolonbiako Kongresuarekin eta haren Bake Batzordearekin lankidetzan eta trukean aritzeko.

2- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari honako hau eska diezaion:

a) Jarrera proaktiboa izaten jarraitu eta hura areagotu dezan eta bere ahalmen diplomatiko guztia baliatu dezan Kolonbiako Gobernuaren aitzinean, bake prozesuari jarritako oztupoak desagerrarazteko eta helburu hori bera planteatu dezan Europar Batasunaren esparruan.

b) Nazioarteko babesa eskatzen duten errefuxiatu kolonbiarrak babesteko asilo politikarekin jarraitu eta hura hobetu dezan, eta indartu ditzan bai arrisku-egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak eta ekimenak, bai eskubideak defendatzen dituzten kolektibo eta komunitateei lurraldean bertan laguntzen dieten nazioarteko lankidetzaren arloko politikak.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentariak: Jabi Arakama Urriaga, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

**10-22/MOC-00066. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da berriemaile gazteen programa bultza dezan gure Komunitate-  
ko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbi-  
de Heziketako ikastetxeetan.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da berriemaile gazteen programa bultza dezan gure Komu-

nitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan eta Lanbide Heziketako ikastetxe-etan, eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Par-  
lamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**10-22/MOC-00067. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-  
tzen da bultza dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako Gazteen  
Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egitea.**

*LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BA-  
TZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasune-ko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeina-  
ren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita bultza dezan Nafarroako aterpetxeek Espainiako

Gazteen Aterpetxeen Espainiako Sarearekin bat egitea. Mozioa 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroa-  
ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## **10-22/MOC-00110. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuaren premia-tzen da genitalak aldatzeko operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuaren premia-tzen baita genitalak aldatzeko

operazioetarako erreferentzia-zentroen sare bat diseinatu eta ezar dezan. Mozioa 2023ko urtarrilaren 13ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **10-23/DEC-00006. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen baitu, eta eskatzen baitu berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1 Nafarroako Parlamentuak Errusiaren eraso militarra salatzen du, eta eskatzen du berehala buka dadila eta indar militarrek Ukrainatik atera daitezela.

2. Nafarroako Parlamentuak borrokak berehala buka daitezela exijitzen du, biktima-kopurua handitu aurretik, eta tropak itzul daitezela nazioarteak Errusiako Federazio gisa aitortutako lurraldera.

3. Nafarroako Parlamentuak eragile guztiei dei egiten die Errusiak hasitako gatazka belikorako konponbideak bila ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du desadostasunak konpontzeko esparrua Nazio Batuen Gutuna dela, bakearen eta diplomaziaren bideak erabiliz.

5. Nafarroako Parlamentuak Europako erakundeak premia-tzen ditu arta ditzaten Ukrainatik

lekualdatu eta Europako beste herrialde batzuetan babesa bilatzen ari diren pertsonak.

6. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun erabatekoa adierazten die Ukrainako Gobernuari eta herriari eta, halaber, Errusian gerraren aurka manifestatzen ari direnei eta jazarpen polizial eta militarra pairatzen ari direnei.

7. Nafarroako Parlamentuak bere babes, esker ona eta errekonozimendua helarazi nahi die Ukrainako herriarentzako laguntza humanitarioa ematen boluntariotza lanetan parte hartu duten Nafarroako pertsonen eta organizazioen.

8. Nafarroako Parlamentuak ekitaldi instituzional bat eginen du Ukrainako herriarentzako laguntza humanitarioa ematen boluntariotza lanetan parte hartu duten Nafarroako organizazioen ordezkariekin. Ekitaldia otsailaren 24an eginen da, 12:00etan, Parlamentuko atalondoan”.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**10-23/PES-00058. Galdera, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa.***JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako desgaitasunaren sektorearean adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko tresna informatikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

2021ean, aholkularitza-txosten bat egin zen adierazle bateratudun aginte-koadro bat ezartzeko Nafarroako desgaitasunaren sektorean.

2021eko Desgaitasuneko Plan Operatiboaren ebaluazio-txostenean adierazten da (40. orrialdean) 2022rako tresna informatikoa bera sortu eta egokitu nahi zela. Hori dela eta, honakoa galde-tzen dut:

1.- Sortu al da jada tresna hori?

2.- Baiezkoan, zein dirulaguntza-prozesutan edo deialditan aplikatu dira jada tresna horretan jasotako irizpideak eta adierazleak?

3.- Ezezkoan, nolabait abiarazi al dira aholkularitza-txostenaren ondorioak? Txostena jaulki zenetik (2021eko ekaina), zein deialditan edo sinatutako zein hitzarmenetan abiarazi dira?

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **10-23/PES-00059. Galdera, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarteko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko Departamentuarteko Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

1.- Zer datatan eta zer gai-zerrendarekin bildu da Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko eratu zen Departamentuarteko Batzordea?

2.- Zer datatan eta zer gai-zerrendarekin bildu da Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko eratu zen Batzorde Betearazlea?

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **10-23/PES-00060. Galdera, jakiteko ea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zer dela-eta eskatu duen ikuskapenak egin dakizkion Guardia Zibileko SEPRONari, eta ez, ordea, Foruzaingoko Ingurumen Brigadari.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zer dela-eta eskatu duen ikuskapenak egin dakizkion Guardia Zibileko SEPRONari, eta ez, ordea, Foruzaingoko Ingurumen Brigadari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

2017ko apirilaren 11n, Tafalla-Zangozako Basozaintzak ikuskapen akta bat egin zuen artegi batean baimenik gabe egindako eraikuntza baten gainean (Kasedako 9. poligonoko 1. lurzatian). Kasedako Udala da eraikuntzaren titularra.

Hauxe dio aktak:

“Erreparatu da abereendako artegi batean pabiloi bat eraikitzen ari dela aurrez alepo pinu gazteek okupatutako lurzoru batean (ortoargazkien arabera, 2003an edo 2004an landatuak); errekerimendua egin ondoren, egiaztatu da ez duela jarduera horretarako baimenik. Egindako

zelaitze-lanak 2.000 metro koadro inguruko azalera hartzen du”.

Aurrez, 2016ko abenduaren 22an, Kasedako Udalak lurzoru urbanizaezinean jarduerak eta erabilerak baimentzeko espediente bat aurkeztu zuen ardi-artegi bat egiteko herri horretako aipatutako 9. poligonoko 1. lurzatian. Espediente hori 0001-OTO2-2017-000014 kodearekin izapidetu zen.

Espedienteari amaiera eman zion Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren maiatzaren 5eko 46E/2021 Ebazpenak, zeinak ukatu egin baitzuen Kasedako Udalak eskatutako baimena.

Hauxe dio Ebazpenak:

“Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak, 2017ko urriaren 18an, aurkako txostena eman zuen jarduera proposatutako tokian kokatzeari dagokionez, ziurra baita toki horretan erromatarren garaiko egiturak daudela eta horiek desmuntatzeko baimenik –baldin eta ez badago gizarte interesik edo ezinbesteko arrazoirik– ez duela emanen Vianako Printzea Erakunde-Kultura Zuzendaritza Nagusiak, ondasun hori 2. gradukotzat jotzen baitu, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 62. artikulua xedatutakoaren arabera”.

2020ko martxoaren 12an egindako txostenean, aipatu Atalak adierazitakoaren arabera “ikuskapena egin ondoren honako hauek egiaztatu dira:

- artegia aztarnegiaren gainean eraiki da.
- eraikuntza egiteko, lurra berdintzeko obra egin da.
- une honetan, artegiaren inguruetako gainazalean ez da hauteman aztarnategia kaltetu izanaren arrastorik.
- artegia kokatuta dagoen gunean egon zitezkeen aztarnak –gaur egun ez ditugu ezagutzen– lurra berdintzean desagertuko ziren”.

2021eko abuztuaren 30ean, Guardia Zibileko Sepronari ikuskapen bat egin zezala eskatu zitzaion, artegia eraikitzeko baimenaren ukapena betetzen ari ote zen egiaztatzeko, eta urte horretako irailaren 15ean eman zuen horri buruzko txostena.

2021eko abenduaren 27an, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren 112E/2021

Ebazpenaren bidez, hirigintzaren arloko legezkotasuna berrezartzeko espediente bat abiatu zen, Kasedako Udalak 9. poligonoko 1. lurzatian egindako lanen harira.

2022ko ekainaren 27an, Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren 85E/2022 Ebazpenaren bidez ebatzi zen Kasedako Udalak 9. poligonoko 1. lurzatian –El Planaz lekuan– egindako jarduketan harira abiatu zen hirigintzaren arloko legezkotasuna berrezartzeko espedientea. Ebazpen horrek agintzen du Kasedako Udalak eraikitako artegia eraitsi behar duela, gehienez ere hiru hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik, lurra fisikoki itzul daitezten urraketa egin baino lehenagoko egoerara.

2022ko urriaren 11n, Guardia Zibileko Sepronari ikuskapen bat egin zezala eskatu zitzaion, artegiaren eraikinaren eraispena betetzen ari ote zen egiaztatzeko, eta urte horretako urriaren 24an eman zuen horri buruzko txostena.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkeztu dira, idatziz erantzun daitezten:

1.- Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak zer dela-eta eskatu zion laguntza 2021ean eta 2022an Guardia Zibileko Sepronari, eta, ez, ordea, Foruzaingoko Ingurumen Brigadari, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren zenbait ebazpenen betetzeari buruko ikuskapenak egiteko?

2.- Ez al du uste Departamentuak Foruzaingoko Ingurumen Brigadak ikuskapen horiek eta kasu kasuko txostenak emateko gaitasun profesional nahikoa duenik?

3.- Zer kargu politiko edo administratibok erabaki zuen aipatu ikuskapen horiek Guardia Zibileko Sepronak egitea eta ez Foruzaingoko Ingurumen Brigadak?

4.- Antzeko egoeren aurrean, ba al dago Departamentuko langileek jarraitu beharreko jarduketaren protokolorik edo kasu bakoitzean ardura-dun politiko edo administratiboek askatasun osoa dute erabakitzeko zein polizia-kidegori eskatzen zaion behar den laguntza?

Iruñean, 2023ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **10-23/PES-00061. Galdera, alokairuko ibilgailu gidaridunen erregistroa sortzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, alokairuko ibilgailu gidaridunen erregistroa sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zenbat AIG-lizentzia baimenduta daude Nafarroan jarduteko?

2.- Horietatik, zenbatek ez du jarduera-bolumenik Nafarroan azken lau urteotan?

3. - Lau urte horietan Nafarroan inolako jarduerarik egin ez duten AIG-lizentzietako titularrei dagokienez, horien jardueraren gaineko azterlan edo kontrolik egin al da? Zeintzuk izan dira emaitzak?

4.- Gobernuaren ustez, lizentzia ez-aktibo horiek hiri-eremuan jarduteko ahalmena galdu beharko lukete?

5.- Horretarako, Gobernuaren ustez, egokia litzateke Hiri-baimenen Erregistroa sortzea, kontrolatze aldera lizentziak eratzten diren unean zeintzuk egon litezkeen ez-aktibo, Nafarroan jarduerarik izan ez dutelako?

Iruñean, 2023ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 10-23/PES-00062. Galdera, aerosorgailu-palen tratamendurako Energy-LOOP enpresak Cortesen sustaturiko plantari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, aerosorgailu-palen tratamendurako EnergyLOOP enpresak Cortesen sustaturiko plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hauek aurkeztzen dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Energia eolikoa energia sortzeko iturrietan bigarrena zen Europan 2019an. Energia-ahalmen hori 20-25 urteko bizitza duten turbina eolikoek sortua da. Parke eolikoaren eraispentetik heldu den pala piloa gero eta handiagoa izanen da denborak aurrera egin ahala, halako moduan non ingurumen-arazo bat gertatuko baita, gaur egun denak joaten direlako zabortegira. 2025ean, adibidez, 500.000 hondakin-tona pala —324.738 tona beira-zuntz— sortuko dira Europan.

Espainiako estatuan, 2018an, 1.123 parke eoliko zeuden, 807 udaletan banaturik. Guztira, 20.306 aerosorgailu ziren, 23,5 Gwko potentzia eoliko metatua zutenak (instalaturako 0,2 palatonaren balioa, hain zuzen ere). 2013tik 2017ra bitarte —krisiaren ondorioz— eten bat gertatu bazen ere, Espainiako estatua da munduan bosgarren herrialdea eta Europan bigarrena potentzia eoliko gehien zeukana instalatuta 2018an, eta horrek erakusten du aerosorgailu-pala asko eta asko daudela hondakin bihurtuko direnak beren balio-bizitza amaitzen denean, 20-25 urte barru gutxi gorabehera.

Bestalde, egoera ez da ezberdina dekomisioaren eta berrindartzearen arloan, Europan dagoen joerari jarraikiz, oso gutxi baitira azken urteetan bere bizitzaren amaierara iristen ari diren aerosorgailuak, nahiz eta aurreikuspenen arabera esponentzialki handituko diren datozen urteetan. Adibidez, Espainiako estatuan 2050ean ia 100.000 hondakin-tona pala egonen bide dira.

Aerosorgailu bat, oro har, lau atalek osatzen dute: zimendua, dorrea, kaxa eta haize-errotorea. Pisuaren ehuneko 60tik 95era bitarte hormigoia-rena izan ohi da, ehuneko 30etik 35era bitarte al-tzairuarena, ehuneko 5 baino gutxiago ordeztuko materialena eta ehuneko 2tik 3ra bitarte polimeroena. Material horietako gehienek birziklatze-ratio handia dute beren balio-bizitza amaitzen denean. Erronkarik handiena, halere, palek daukaten polimeroak birziklatzeak dakar. Beira-zuntzez sendotutako plastikoak material konposatuak dira, erretxina termoeogonkorreko edo termoplastikoko matrize batek osatuak, beira-zuntzez sendotuak. Material arinak dira, erresistenteak eta moldekatzen erraz-errazak; hori dela-eta, sarri erabiltzen dira, zurruntasun handia ematen dutelako.

Horregatik guztiagatik, argi dago ezen palak, erabileratik at daudenean, ingurumen-arazo handia eraginen duten hondakina direla, hain baita handia horien kantitatea eta bolumena. Gaur egun ez dago erabileratik at dauden aerosorgailu-palak kudeatzeko berariazko metodorik, eta zuzenean doaz zabortegira, ez baitago legerik edo zuzentzaririk horien balio-bizitza amaitzen denean zer egin ezartzen duenik, eta ingurumen-inpaktu negatiboa oso handia da.

Gainera, osagai geldo eta ez-biodegradagarria da, baina moztu, xehatu edo birrinduz gero, beira-zuntzetik sortzen den hautsa oso arriskutsua da gizakien osasunerako baldin eta arnasten edo irensten bada edo larruzalarekin kontaktuan jartzen bada, arnasa hartzeko zailtasuna eta larruzalaren narritadura eragiten duelako. Beira-zuntza arnastuz gero, pertsona sentiberen kasuan larriagotu egin daitezke asma edo bestelako arnas-eritasun kroniko batzuk; are gehiago, hauts-partikula txikiagoak ere kaltegarriak izan daitezke osasunerako, biriketako alderik sakonenetara iristen ahal direlako.

Zabortegiarenaz gain, errausketa da beste aukera bat (konposite produktua lortzeko erabil-



tzen den energiaren ehuneko 10 baino ez da berreskuratzen erraustean). Gainera, errausketa-prozesuan arazo tekniko ugari ematen direla frogatu da, errekontza-gasean zuntzak daudelako, gasa garbitzeko sistema kaltetzen dutenak, bai eta desagerrarazi beharreko errauts hegalarri ugari ere, eta horri gehitu behar zaizkio errausketan jaulkitzen diren gasek eragindako arazoak. Horregatik guztiagatik, palen balio-bizitzaren amaierarako azken aukera izan beharko lirateke bai zaborte-gia bai errausketa.

Aerosorgailu-palen tratamendurako beste aukera batzuk ere badaude, eta horiek ere arazoak ematen dituzte:

— Tratamendu mekanikoa. Zuntzak eta matrizea birrintzea da. Material konposatua birrindu, eho edo gisako prozesuen bidez hausten da. Merkea da, baina zuntzentzat oso erasokorra eta suntsitzailea da. Kasu horretan, beira-zuntza onik berreskuratzen da eta nahasketa bituminosoetarako baliatzen da. Horrek duen abantaila da zuntzaren luzerak motza izan behar duela, eta berdin dio erretxina-hondarrez inpregnatuta badago ere.

— Tratamendu kimikoa. Horren helburua da despolimerizazio kimikoa edo matrizea desagerraraztea eta beira-zuntzak askatzea gero birziklatzeko disolbatzaileak eta produktu kimiko organikoak edo ez-organikoak erabiliz, 450<sup>o</sup> zentigradutik behehitiko tenperaturekin eta 250 bar inguruko presioarekin, matrizearen polimerizazio-gradua zein den.

— Tratamendu termikoaren bidez. Pirolisia da teknikarik ohikoena gaur egun. Zuntzen gaineko efektu oxi-termikoak murriztu egiten ditu zuntzaren hasierako propietate mekanikoak. Temperatura altua erabiltzen da (300<sup>o</sup>-tik 1000<sup>o</sup> zentrigradura bitarte) erretxina deskonposatzeko eta beira-zuntzak bereizteko. Beira-zuntz garbiak eta filler-a lortzen dira, eta bigarren mailako erregaia lor daiteke (erraustu egiten dena), edo pirolisiaren, gasifikazioaren edo errekontzaren bidezko energia termikoa.

Iragan urtarrilaren 19an ezagutu zen “aerosorgailu-palak birziklatzeko planta bat eraikitzeko proiektua”, zeina EnergyLOOP enpresak –Iberdrolak eta Fomento de Construcciones y Contratas enpresek osatua– sustatu baitu. 10 milioi euroko inbertsioa egiten lukeen ekimen horrek ia hiru milioi euroko laguntzak jasotzea aurreikusten du,

bai eta birziklapenerako eta birmanufakturaziorako onetsitako zerga-kenkariak ere.

Nafarroako Gobernuak banatutako prentsa-ohar ofizialaren arabera, proiektuak foru gobernuaren babesa du, “herrialde hau energia berriztagarrien abangoardian jartzen duen jarduketa estrategikoa” delako, “berrikuntza teknologikoa eta zirkulartasuna jasotzen baititu eta erregio-mailako espezializazio adimentsuarekin bat baitator”.

Ekologistek auzitan jarri dute Cortesen eraikiko den planta egiaz birziklatze-plana denik. Hortaz, beharrezkoa da gobernuak argitzea egiaz zer planta-mota den eta zer tratamendu-mota baliatu den bertan.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten ditut, idatziz erantzun dakien:

1.- Iragarri den Cortesko planta aerosorgailu-palen tratamendurako planta bat besterik ez da izanen ala egiazko birziklatze-planta bat izanen da?

2.- Cortesko plantan palei emanen zaien tratamendua materialak banatzeko prozedura –ondoren balorizatzeko– besterik ez da izanen?

3.- Balorizazio hori errausketaren bidezko balorizazio energetikoa izanen da soil-soilik?

4.- Zer tratamendu-metodo ezarriko da zehatz-zehatz Cortesen paratuko den plantan? Mekanikoa, kimikoa ala termikoa izanen al da?

5.- Nafarroako Gobernuaren ustez, tratamendu kimikoak edo termikoak ekonomia zirkularraren berezko birziklatze-sistemak al dira?

6.- Gobernuak ba al daki Cortesko plantan sartzen diren aerosorgailu-palen tona guztietatik zenbat baliatzen ahalko diren materialak berrerabiltzeko eta berreskuratzeke?

7.- Nafarroako Gobernuak edo bere merkataritza-sozietateek zer laguntza zuzen emanen diote ekimen horri? Zenbat egiten dute guztira laguntza horiek?

8.- EnergyLOOP merkataritza-sozietateari zer zerga-arintze aplikatuko zaio? Zer kontzeptutan aplikatuko zaizkio?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



**10-23/PES-00063. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean Nafarroako toki entitateek parte hartzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean Nafarroako toki entitateek parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Toki-entitateek zer parte hartze izan dute Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean? Xehakatu datuak proiektuen, urteen eta toki-entitateen arabera.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

**10-23/PES-00064. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 5. proiektua Nafarroako toki entitateen bidez betetzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako

hitzarmeneko 5. proiektua Nafarroako toki entitateen bidez betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren

proiektuen azalpenean, 5. proiektuan jasotzen da –OGZak indartzea– toki-entitateen bitartez egin behar dela urte bakoitzeko aurrekontu osoaren parte bat.

Proiektu horretako zer aurrekontu bete da 2021ean eta 2022an toki-entitateen bitartez? Xehakatu datuak urteen eta toki-entitateen arabera.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

---

**10-23/PES-00065. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektuak betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmeneko 11 proiektuak 2021ean eta 2022an betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Zenbat diru bete da 2021ean eta 2022an Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren 11 proiektuetako bakoitzean? Xehakatu datuak urteen eta proiektuen arabera.

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

**10-23/PES-00066. Galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuen betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Zer betetze-maila dute Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsen kargurako proiektua betetze aldera Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Eskubide Sozialetako eta 2030 Agendako Ministerioak sinatutako hitzarmenean jasotzen diren irisgarritasun-arloko proiektuek?

Zeintzuk dira betetzen ari diren beste 3 proiektuak? Zein da horietako bakoitzaren betetze-maila?

Iruñean, 2023ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 26/2023 Ebazpena, otsailaren 21ekoa, zeinaren bidez bost idatzizko galdera sartzen baitira martxoaren 15erako deituta dagoen Eskubide Sozialetako bilkuran, ahoz erantzun daitezten.**

Navarra Suma talde parlamentarioko Jorge Esparza Garrido jaunak eskatzen du ahoz erantzuteko galdera bihur daitezzen bere garaian idatzizko erantzuna jasotzeko egin zituenak —ondoren aipatuko dira—, hamabost egun baino gehiago iragan baitira Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zirenetik Nafarroako Gobernuak Parlamentura erantzunik bidali gabe.

Kontuan izanda Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194.2 artikulua ezartzen duela galderen idatzizko erantzuna galdera argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan eman beharko dela, eta Lehendakaritza honi agintzen diola, aipatu epean Gobernuak erantzunik bidali ez badu, eta galdegileak horrela eskatuta, kasuan kasuko batzordearen hurrengo bilkuraren gai zerrendan sartzea, eta hori dela Jorge Esparza Garrido jaunak egindako eskaeran aipatzen den galderen kasua —galderak erabaki honekin batera eransten dira—, hona ERABAKIA:

1. Agintzen da heldu den martxoaren 15ean 12:15ean Eskubide Sozialetako Batzordeak egiten duen bilkurako gai-zerrendan honako galdera

hauek sar daitezten, kontseilari eskudunak ahozko erantzuna eman diezaien:

– PES 10-23/PES-00024, 2023ko urtarrilaren 17ko 13. NPAOn argitaratuta.

– PES 10-23/PES-00025, 2023ko urtarrilaren 17ko 13. NPAOn argitaratuta.

– PES 10-23/PES-00026, 2023ko urtarrilaren 17ko 13. NPAOn argitaratuta.

– PES 10-23/PES-00028, 2023ko urtarrilaren 17ko 13. NPAOn argitaratuta.

– PES 10-23/PES-00029, 2023ko urtarrilaren 17ko 13. NPAOn argitaratuta.

2. Erabaki hau igortzea Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariari, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Deialdia, hautapoben bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzekoa: bata, Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako; eta bestea, aldi baterako administrazio-kontrataziorako.**

*GAINDITU DUTEN IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikarien bi zerrenda —bat Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako, eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako— hautapoben bidez osatzeko deialdiko Epaimahaiak aurkeztu ditu deialdi horretara aurkeztu diren izangaiek lortuta-

ko emaitzen behin betiko zerrenda eta Epaimahaiak eginiko bileren aktak (PER20220027).

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. artikuluan esleitutako eskumenak baliatuz, hona ERABAKIA:

1.- Gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikarien bi zerrenda osatzeko deialdiari dagokionez. Honako hau da:

Izen-abizenak	Lehen ariketaren puntuazioa	Bigarren ariketaren puntuazioa	Puntuazioa, guztira
ARCE GUILLÉN, JOSE MARÍA	29,00	39,00	68,00
LEZÁUN ECHAURI, JOSU EDER	27,33	26,50	53,83
VÁZQUEZ ARTETA, ASIER	21,33	25,75	47,08
NAVASCUÉS PUYADA, JAVIER	21,83	19,50	41,33
IRAZOKI ZUBIETA, JAVIER LEOPOLDO	22,17	18,50	40,67
LEAL GARCÍA, EDUARDO	22,00	18,25	40,25

2.- Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, bai eta Parlamentuaren web orrian eta iragarki-oholean ere.

Iruñean, 2023ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias